

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onarpena ematea musika eskolaren barne arautegiaren aldaketari

Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Aguraingo Udalbatzaren 2024ko urtarrilaren 25eko erabakia behin betiko bihurtu da automatikoki. Erabaki horren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo Euskara Kontseiluaren araudiari, eta haren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Agurain udal musika eskola

Barne arautegia

1. titulua. Agurain udal musika eskolaren titulartasuna eta irakaskuntzaren antolamendua.
 1. kapitulua. Zentroaren udal izaera eta helburuak.
 2. kapitulua. Ikasketen antolamendua.
 3. kapitulua. Plan pedagogiko orokorra.
2. titulua. Irakaskuntzaren antolamendua eta musika eskolaren kudeaketa.
 1. kapitulua. Irakaskuntzaren antolaketa.
 1. atala. Udal musika eskola.
 2. atala. Irakaskuntza indartua.
 3. atala. Araubide akademikoa.
 2. kapitulua. Kudeaketa- eta partaidetza-organoak.
 1. atala. Gobernu eta administrazio organo gorena.
 2. atala. Eskola kontseilua.
3. titulua. Irakasleen funtzionamendu araubidea.
 1. kapitulua. Irakasleen klaustroa.
 2. kapitulua. Zuzendaritza eta hezkuntza arloa.
 3. kapitulua. Irakasleen eskubideak eta betebeharrak.
4. titulua. Ikasleen funtzionamendu araubidea.
5. titulua. Musika eskolako arau hauste eta zehapenen araubidea.

1. titulua. Agurain udal musika eskolaren titulartasuna eta irakaskuntzaren antolamendua

1. kapitulua. Zentroaren udal izaera eta helburuak

1. artikulua

1. Agurain udal musika eskola ikastetxe bat da, musika irakaskuntza ez arautuko berariazko eskola gisa eraturia. Hauek dira haren oinarritzko arauak: 1/1990 Legearen, hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrarenaren, 39.5 artikulua; Eusko Jaurlaritzaren 1992ko urriaren 27ko 289/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza ez arautuko zentroak, musika eskolak, sortzeko eta haien funtzionamendurako oinarritzko arauak ezartzen dituenak; eta aurreko horiek garatzen dituzten arauak.

2. Agurain udal musika eskola musika ikastetxe bat da, eta helburu orokorra du, alde batetik, musika heziketa praktikoa eskaintzea gutxieneko gaitasunak dituzten musikazaleei, eta bestetik, musikako lanbide ikasketetarako orientazioa eta prestakuntza ematea bokazio eta gaitasun bereziak agertzen dituzten ikasleei.

3. Udal musika eskola udal titulartasuneko da.

4. Aguraingo Zapatari kaleko 33ko beheko solairuan dago musika eskola.

5. Aguraingo Udalak arreta berezia jarriko dio irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskaintzeari. Hartara, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira, eta lehenetsia emango zaio euskaraz irakasteari.

2. artikulua

Agurain udal musika eskolak xede hauek ditu:

a) Musika esperientzia aktiboaren eskari zabalari erantzutea.

b) Musika tresnak taldean jotzea sustatzea; izan ere, pertsonen heziketa erabatekoa izan dadin, musika heziketa osoa beharrezkotzat jotzen da, eta, gainera, musika praktikatzeko banakakoari nahiz taldeari on egiten dio.

c) Musika irakaskuntza ez arautua eskaintzea, eta ikasleen parte hartze aktiboa sustatzea bai bakarka bai taldean.

d) Gure inguruko esparru soziokulturala dinamizatzea, musika-jardueraren bidez.

e) Musikaren ulermen orokorrerako beharrezkoak diren oinarritzko gai teorikoak irakastea. Ikasleen heziketa prozesuari egokitu ahal izango zaizkio.

f) Musika irakaskuntza eskaintzea, 1. mailatik edo atalase mailatik hasita, hala nahi duen 4 urte baino gehiagoko pertsona orori, eta adin mugarik gabe.

g) Musika estiloen eta joeren sorta handia eskaintzea.

h) Era guztietako musika estiloak modu aktiboan entzuteko zaletasuna sustatzea eta sen kritikoa garatzea.

i) Musika-ikuskizunak entzuteko irteerak antolatzea.

j) Beren gaitasunagatik eta interesagatik ikasketa arautuetara igarotzeko moduan dauden ikasleei orientazioa eta heziketa sakonagoa eskaintzea.

k) Beste musika eskola batzuekin koordinaturik aritzea, irakasle eta ikasleei irakaskuntzarako metodologiaren trukea, baterako jarduerak, antolaketa eta funtzionamendu ereduak eta abarrekoko errazteko.

l) Musika irakaskuntzaren programazioa ikasleen askotarikotasunari egokitzea, kontuan hartuta ikasleek ere frogatu egin behar dutela jasotako irakaskuntzaren aprobetxamendua.

- m) Irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea.
- n) Tokiko eta eskualdeko musika tradizioak bildu, sistematizatu eta zabaltzea, horiek baitira gure herriaren eta Euskal Herriaren gizarte eta kultura nortasunaren isla.
- o) Tokiko musika kulturaren eragin positiboa izatea.
- p) Inguruko kultura musikalean eragitea, jarduera publikoen programazio egonkorren bidez.
- q) Musika eskolaren helburua udalerriko musika elkarten garapenerako oinarria izatea da.

2. kapitulua. Ikasketen antolamendua

3. artikulua

Agurain musika eskolak eskainiko dituen heziketa eta gaitasun mailak honako hauek dira:

Modalitate orokorra:

- 1. maila edo atalase maila (4-7 urte). Ez da gaitasun mailarik egongo. 4 kurtso iraungo du.
- 2. maila edo hastapen maila (8 urtetik aurrera). Ikasleek lortu beharreko gaitasuna kontserbatorioko (irakaskuntza arautua) oinarritzko mailaren parekoa izanen da. 6 kurtso iraungo du.
- 3. maila edo finkatze maila. Ikasleak musika tresna jotzeko lortu behar duen gaitasuna kontserbatorioko (irakaskuntza arautua) erdi mailako bigarren zikloa gainditzearen parekoa izanen da, edo, bestela, ikasleak instrumentu edo ahots taldeetan moldatzeko adinako independentzia maila lortu beharko du musika tresnarekin edo ahotsarekin. 6 kurtso iraungo du.

Berariazko modalitatea:

Funtsean helduentzako modalitatea da. Helburua da musikazale gisa musikaz gozatzeko adinako gaitasun maila lortzea musika tresnarekin, epe mugatuan (bost urte). Ondorio guztietarako, ikasle horiek 2. mailan egongo dira. Musika tresna bat jotzen edo bakarlari kantuan ikasi nahi duten 18 urtetik gorako pertsonak nahitaez egin beharko dute modalitate hori; modalitate orokorrean sartu ahal izango dira, soil-soilik, irakasleak komenigarritzat jo eta organo eskudunak onartzen duenean.

4. artikulua

Udal musika eskolako ikasketak, maila guztietan, adar hauetan banatuko dira:

- Bakarlari kantua.
- Instrumentu sinfonikoak: hari instrumentuak (biolina eta biolontxelo), metalezko haize instrumentuak (tronpeta, tronboia, bombardinoa eta tuba), zurezko haize instrumentuak (zeharkako txirula, klarineta eta saxofoia) eta perkusio instrumentuak.
- Instrumentu polifonikoak: pianoa, organoa, akordeoia eta gitarra.
- Herri musika instrumentala: trikitia, alboka, txistua eta dultzaina.
- Askotariko joerak: gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, pianoa/teklatura, bateria, saxofoia, txirula, trikitia/akordeoia, biolina,...

5. artikulua

Askotariko joerak adarraren ezaugarri bereziak direla eta, adar horretako irakaskuntza, zentroaren irizpidearen arabera, arautegi honen 3. artikuluan ezarritako mailakako funtzionamendu eskematik kanpo utz daiteke, funtsean taldeka funtzionatzen duelako.

3. kapitulua. Plan pedagogiko orokorra

6. artikulua

Honako hauek dira Musika Eskolak eskainiko dituen ikasketak, horien mailak, adarrak eta espezialitateak:

- Ikasketa nagusiak: ikasketa nagusiak dira, adar instrumentaletan, instrumentuko eta bakarlari kantuko eskolak.
- Talde irakaskuntza: talde irakaskuntza dira instrumentu taldeak eta ahots taldeak.
- Ikasketa osagarriak: musika bere osoan hobeto ezagutzen laguntzen dutenak; dinamika pedagogikoaren arabera eskainiko dira.

2. titulua. Irakaskuntzaren antolamendua eta Musika Eskolaren kudeaketa

1. kapitulua. Irakaskuntzaren antolaketa

1. atala. Udal musika eskola.

7. artikulua

1. Udal musika eskolako irakaskuntza, definizioz, taldekoa da, alegia, ikasle talde batek eskolan parte hartzen du lan bera eginez.

2. Musika-eskolak ezarriko du ikasle bakoitzari eskainitako denbora, bakoitzaren interesen, gaitasunaren eta astialdiaren arabera. Hori eskola publikoaren ordutegi-planean jaso beharko da, irakasle bakoitzak alde aurretik proposatutako ordutegi-plana kontuan hartuta.

3. Bakarka irakatsi ahal izango da, baldin eta, antolaketa arazoengatik, ezin bada talderik osatu antzeko interesak, maila eta gaitasunak dituzten ikasleekin.

4. Talde irakaskuntzan, dedikazio denborak helburuen arabera zehaztuko dira. Arau orokor gisa, gutxienez 30 minutukoa eta gehienez 60 minutukoa izango da dedikazio tarteak, musika talde bakoitzeko.

5. Ikasle guztiek frogatu beharko dute kurtso bakoitzeko helburuak bete eta edukiak ikasi dituztela eta aprobetxamendu egokia lortu dutela. Bestela eskolatik kanporatuko dituzte, arautegi honetan ezarritako mekanismoen bitartez.

8. artikulua

Musika Eskolak erabateko autonomia izango du maila eta adar bakoitzeko ikasketen programa egiteko, eta jarraituko den irizpide bakarra honako hau izango da: eskainitako adar eta espezialitateetako maila homologo guztiek jaso beharko dutela horiek gainditu ahal izateko gaitasun maila parekagarria, ikastegiaren hezkuntza egitasmoan zehaztuko dena.

Irakaskuntzaren programazioa ikaslearen interesetara, dedikaziora eta ikasteko erritmora egokituko da. Baina, jakina, jasotako ikasgaiak era egokian aprobetxatzea ahalbidetuko duten gutxieneko baldintza batzuk izan beharko ditu ikasleak.

Ondorioz, musika-eskolak askatasuna eta autonomia izango ditu bere eskaintza planifikatzeko orduan, ahalik eta hobekien egokitze ikaslearen interes eta gaitasunetara.

9. artikulua

Gaitasun, interes eta aprobetxamendu bereziak dituzten ikasleek beren garapena azkartzeko aukera izango dute, sistema arautuan sartzeari begira; betiere, irakasleak egoki irizten badio eta organo eskudunak onartzen badu, ikaslearen oniritzia jaso ondoren.

Laguntza gehigarria jasotzen duten ikasle horiek behar duten prestakuntza jasoko dute, sistema arautuko lanbide ikasketak edo goi mailako ikasketak egiteko sarrera probetan eskatzen den jakintza bermatzeko.

8 - 17 urte bitarteko ikasleek instrumentu taldean matrikulatu beharko dira, haien gaitasun instrumentalak eta eskolaren antolaketa ahalmenak horretarako aukera ematen dutenean, edo ahots taldean. 18 urtetik gorako ikasleen kasuan hautazkoa izango da, betiere haien instrumentu edo ahots gaitasunak bidea ematen duenean.

10. artikulua

Musika eskolan ikasleak matrikulatzeko araubideak honako irizpide hauei jarraituko die:

- 1. maila edo atalase maila: 4 - 7 urte.
- 2. maila edo hastapeneko maila: 8 urtetik aurrera.

18 urtetik beherako ikasleek musika hizkuntzako 4 kurtso egingo dituzte nahitaez, salbu eta musika eskolako musika hizkuntzako lau kurtso horien baliokide diren ezagutzak lehendik dituztela frogatzen badute.

18 urtetik gorako ikasleek musika hizkuntzako 2 kurtso egingo dituzte nahitaez, salbu eta musika eskolako musika hizkuntzako 2 kurtso horien baliokide diren ezagutzak lehendik dituztela frogatzen badute.

Maila horretan, ikasleen talde eskolak instrumentu edo ahots taldekoa eta musika hizkuntzako izango dira. Eskola nagusia, berriz, instrumentu edo kantu eskola izango da.

Musika hizkuntzako 4 kurtsoak amaitu ondoren, ikasleak musika eskolan eskaintzen diren beste irakasgai osagarri batzuekin jarraitu ahal izango du, edo ikasketa nagusiak eta talde ikasketak bakarrik egin ahal izango ditu.

- 3. maila edo finkatze maila:

Ikasketa nagusizat instrumentua edo kantua duen ikaslea instrumentu taldean edota ahots taldean ere matrikulatu ahal izango da, musika eskolak antolamendurako duen gaitasunak aukera ematen badu.

Maila horretan, instrumentuan edo kantuan ez matrikulatzeko aukera izango du, interesdu-nak taldeko praktika hutsaren bidez, musika eskolaren ustez, taldeetan parte hartzeko behar den instrumentu edo ahots gaitasunaren maila lortu badu.

11. artikulua

Ikasle edo talde bakoitzari eman beharreko denbora honako hau izango da:

- a) 1. maila edo atalase maila.

4 eta 5 urteko taldeak. Gehieneko ikasle kopurua taldeko: 12. Astean ordubete taldeko, 30na minutuko bi eskolatan.

6 urteko taldeak. Gehieneko ikasle kopurua taldeko: 14. Astean ordubete eta 30 minutu taldeko, 45na minutuko bi eskolatan.

7 urteko taldeak. Gehieneko ikasle kopurua taldeko: 14. Astean ordubete eta 30 minutu taldeko, 45na minutuko bi eskolatan. Ikasleek tailerren bidez jasoko dituzte musika eskolan ematen diren musika tresnen eskolak; horrela, informazio gehiago izango dute 2. mailan ikasi beharreko musika tresna aukeratzean.

- b) Musika hizkuntza.

Musika hizkuntzako maila guztietan (1., 2., 3. eta 4. kurtsoak) gehienez ere 20 ikasleko taldeak egingo dira, eta gutxienez, 5 ikaslekoak, astean 90 minutuko iraupenarekin. Taldeak berregituratzeko aukera egongo da, izena eman dute pertsoneri eta klaseen iraupenari dagokienez, taldea osatzen duten ikasleen kopuruak, gehiegi edo gutxiegi direlako, ikaste prozesu egokia eragozten badu.

c) Ikasketa nagusiak: instrumentua edo kantua.

Instrumentu edo kantu ikasketa nagusietarako, 30 minutu emango dira astean.

d) Talde irakaskuntza (instrumentu taldeak edo ahots taldeak).

Talde irakaskuntzako denbora lortu nahi diren helburuen arabera ezarriko da, baina, oro har, astean 30 minutu emango dira taldeko, gutxienez, eta 60 minutu taldeko, gehienez.

e) Ikasketa osagarriak.

Ikasketa osagarrietako denborak, unean uneko eta iraunaldi jakineko ikasketak izan (ikas-taroak, tailerrak eta abar) nahiz iraunkorrak izan, musika eskolak ezarriko ditu, proposatutako helburuen arabera.

12. artikulua

Udal musika eskolako irakasleek beren lan kontratuetan zehaztutako eskola orduak eman beharko dituzte astean. Eskola ordu horietaz gainera beren kontratuetan ezarritako orduak emango dituzte eskolak eta musika jarduerak prestatzen, familiekin hitz egiten, klaustroaren bileretan eta zentroak zehazten dituen bestelakoetan.

Irakasleen tutoretza orduak musika eskolako iragarki oholean eta Udalaren web orrian egongo dira jarrita.

13. artikulua

Udal musika eskolan ikasleek egingo dituzten praktika mota guztiak beti egin beharko dira arloko irakasleren baten laguntzarekin edo baimenarekin.

14. artikulua

Ikasturtearen hasieratik, musika eskolako iragarki oholean eta Udalaren web orrian eskola egutegia egongo da, baina, hori baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak onartu beharko du.

15. artikulua

Eskolak "ezinbesteko arrazoiengatik" eten ahal izango dira. Hori ikasturte batean behin baino gehiagotan gertatzen bada, lehen eguneko eskolak ez dira berreskuratuko, baina bigarren egunetik aurrera klase guztiak berreskuratuko dira.

2. atala. Irakaskuntza indartua.

16. artikulua

Gaitasun, zaletasun, ahalmen eta aprobetxamendu bereziak dituzten ikasleek beren prestakuntza areagotu dezaketela uste ahal izango da, irakasleak hala irizten badio, interesduna ados badago eta zentroko organo eskudunak oniritzia ematen badu.

- "Irakaskuntza indartuko" ikasle horiek behar duten prestakuntza jasoko dute sistema arautuan sartzeko probetan eskatuko zaizkien ezagutzak bermatzeko

- Bakarleri kantuko edo instrumentuko ikasleek bakarrik jaso ahal izango dute irakaskuntza indartua.

- Irakaskuntza indartua hauxe izango da: instrumentuko edo bakarleri kantuko 30 minutu gehiago astean eta musika hizkuntzako ordu bat astean.

3. atala. Araubide akademikoa.

17. artikulua

Ikasleen aurreinskripzioa eta matrikulazioa zehaztuko diren egunetan egingo dira. Egun horiek aldeztu aurretik ezagutaraziko dira, behar den publikitatearekin.

18. artikulua

- Aurreko ikasturtean matrikulaturiko ikasleek lehentasuna izango dute berrien aldean.
- Udalerrian erroldatuta dauden eskatzaileek lehentasuna izango dute erroldatuta ez daudenen aldean.
- Eskatzaile berrien kopurua libre dauden plazen kopurua baino handiagoa bada, zozketa hauek egingo dira lehentasun ordena ezartzeko:
 - a) Erroldatutako pertsonen arteko zozketa.
 - b) Erroldatu gabeko pertsonen arteko zozketa.

Artikulu honetako lehenengo puntua kontuan hartu gabe, Musika Eskolak, bere eskola-kontseiluak aldeztatik hala erabaki ondoren, zenbait matrikula atzera botatzeko ahalmena izango du, hain zuzen, aurreko urtean matrikulatuta egon diren eta jasotako irakaskuntzari probetxu oso eskasa ateratu dioten ikasleena.

19. artikulua

1. Matrikulatu nahi duten pertsonak musika eskolako idazkaritzan emango zaien inprimakia bete beharko dute. Bertan eskatzen den informazio guztia jarri beharko dute.
2. Matrikulatzerakoan, ordenantza egokian ezarrita dauden tasa publikoak ordaindu beharko dituzte ikasleek.
3. Matrikulatzeak esan nahi du musika eskolak ezarritako arauak onartzen direla, horretarako, matrikulatutako pertsona guztiek ikasi nahi dituzten gai buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango dute.

20. artikulua

Musika-eskolaren ordutegiak lan-ordutegiak errespetatuko ditu soilik, edo araubide orokorreko edo unibertsitateko zentroenak.

Beste jardueren batzuen ordutegiak, dela jardueren ludikoena, kirol jarduerena edo prestakuntza jarduerena, musika eskolak eskaintako ordutegira moldatu beharko dira. Ordutegiek bat egiten badute, musika eskolak ez du zertan ikasleari beste ordutegi aukera bat eskaini.

Bajak: idatziz eskatu beharko dira, idatzia aurkeztuz Aguraingo eskolako idazkaritzan, honek idatziz jakinaraziko dio udalari. Bajak udal musika eskolaren zerbitzua emateagatik prezio publikoaren epigrafean ezarritako ondorioak izango ditu, zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan.

Ikasleak gehienez ere bi espezialitate instrumentaletan matrikulatu ahal izango dira.

Instrumentu aldaketa: instrumentuz aldatzeak ez du lehentasunik ematen beste ikasle berri batzuen aldean.

21. artikulua

Irakaskuntzaren baten zuzeneko ardura duten irakasle bakoitzak beren ikasleak ebaluatuko ditu, eta ebaluazio hori inprimaki batean jasoko du. Halaber, hutsegite guztiak inprimaki horretan jasoko dira.

1. Hiruhileko bakoitzaren amaieran, ikasleak txosten bat jasoko du eta, bertan, bere aprobe-txamendua, gaitasunak, irakasgaiarekiko duen interesa eta hutsegiteak azalduko dira.
2. Modalitate orokorrean edo espezifikoa iraun daitekeen denbora:
 - Ikasleek gehienez 5 kurtso (elkarren segidan edo aldizka) egin ahal izango dituzte instrumentu espezialitate batean, modalitate espezifikoa.
 - Modalitate orokorreko ikasleek behin bakarrik errepikatu ahal izango dute kurtso bera.

2. kapitulua. Kudeaketa- eta partaidetza-organoak

22. artikulua

Musika-eskolak organo hauek izango ditu:

a) Elkargokideak: eskola-kontseilua.

Lehendakaria: alkatetza edo hark eskuordetutako pertsona.

Zuzendaritza-taldea: zuzendaritza, ikasketa-burutza eta idazkaritza.

“Musika Giroa” ikasleen gurasoen elkarte.

Ikasleen elkarte.

b) Pertsona bakarrekoak:

Zuzendaritza.

Ikasketa-burua.

Idazkaritza.

Lehendakaritza.

1. atala. Gobernu eta administrazio organo gorena.

23. artikulua

Aguraingo Udalaren osoko bilkura da zentroaren gobernu eta administrazio organo gorena, erabakitze ahalmena duena.

2. atala. Eskola kontseilua.

24. artikulua

Eskola kontseilua musika eskolako gobernuan eskola elkarteko kideek parte hartzeko organoa da. Eskola-bizitzari eragiten dioten funtsezko erabakiak ditu esleituta, eta bizitza horren funtzionamenduaren azken arduraduna da.

Eskola kontseiluak honako zeregin hauek ditu:

a) Udalari hezkuntza egitasmoaren eta curriculum proiektuaren berri ematea, eta proposamenak egitea musika eskolako barne arautegiaren inguruan.

b) Udalari musika eskolako prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programaren berri ematea.

c) Udalari musika eskolako urteko memoriaren berri ematea.

d) Musika eskolako prestakuntza jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak nola gauzatzen diren bertatik bertara zaintzea.

e) Musika eskolak dituen beharren gaineko txostena egitea, eskola ekipamenduari eta instalazioei dagokionez eta, halaber, horiek mantendu eta berritzeari dagokionez, eta musika eskolako inbentarioaren eguneratzea kontrolatzea.

f) Ikasleak musika eskolan onartzeari buruzko erabakiak hartzea, indarrean dauden araei hertsiki jarraituz.

g) Ikasleen arteko gatazkak ebaztea eta ikasleen diziplinaren arloko zehapenak ezartzea, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araei jarraituz.

h) Beste zentro batzuekiko lankidetzaren harremanak ezartzea, kultura eta hezkuntza arloko helburretarako.

i) Musika eskolako jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazioari eta irakaskuntzari dagokionez.

25. artikulua

Musika eskolako eskola kontseiluan honako kide hauek izango dira:

- a) Lehendakaria: Aguraingo Udaleko alkatetza edo hark eskuordetutako pertsona.
- b) Musika-eskolaren zuzendaritza.
- c) Musika-eskolako ikasketa-burua.
- d) Musika-eskolako idazkaritza. Pertsona horrek idazkari-lanak egingo ditu eskola-kontseiluan, edo, bestela, eskola-kontseiluko beste edozein kidek.
- e) "Musika Giroa" ikasleen guraso-elkarteko zuzendaritza-batzordeko bi ordezkari.
- f) Ikasleen elkarteko ordezkari bat.

26. artikulua

Lehendakaria izan ezik, eskola kontseiluko gainerako kideak, aldiz, 3 ikasturterako hautatuko dira, eta ezin izango dute, berrautapenen bitartez, jarraian 9 ikasturte baino gehiago iraun beren karguetan.

27. artikulua

Eskola-kontseiluaren osaeran gertatzen den edozein aldaketaren berri berehala emango dio zuzendaritzak hezkuntzako lurralde-ordezkaritari.

28. artikulua

Eskola kontseiluaren bilerak egingo dira kide guztiek edo, behintzat, gehienek joateko aukera izango duten egunean eta orduan.

Bilerak ohikoak edo bereziak izan daitezke.

Ohiko bileretan, zuzendari-ikasketaburuak deialdia bidaliko die eskola kontseiluko kideei, bilera baino astebete lehenago, eta bertan aztergaien zerrenda, eguna eta ordua adieraziko ditu; onartu ala ez erabaki aurretik eztabaidatu behar diren gaiei buruzko agiriak ere bidaliko ditu, hala behar denean.

Bilera berezien kasuan, zuzendari-ikasketaburuak bileraren eguna baino 2 egun baliodun lehenago bidaliko du deialdia.

29. artikulua

Eskola kontseilua hiruhileko bakoitzean gutxienez behin bilduko da ohiko bilera egiteko, eta Lehendakariak deitzen badu eta zuzendaritzak hala eskatzen badu., edo kideen herenak hala eskatzen duenean. Kasu horretan, kontseiluko lehendakariak eskola kontseilua biltzeko deialdia egingo du, gehienez ere 10 eguneko epean.

Edonola ere, eskola kontseilua ikasturte bakoitzaren hasieran eta bukaeran bilduko da gutxienez.

30. artikulua

Eskola kontseiluak erabakiak gehiengo soilez hartuko ditu, hezkuntza egitasmoaren proposamenari eta barne arautegiaren proposamenari buruzko txostenaren inguruko erabakia eta barne arautegiaren aldaketen gainekoa izan ezik. Izan ere, eskola kontseilua osatzen duten kide guztien bi herenen gehiengoaz hartuko dira erabaki horiek.

Honako hau hartzen da gehiengo soiltzat eta gehiengo osotzat:

- a) Gehiengo soila: aldeko botoak kontrako botoak baino gehiago direnean.
- b) Gehiengo osoa: eskola kontseilua osatzen duten kide guztien erdiak gehi bat, gutxienez.

31. artikulua

Eginkizun hauek kontseiluko lehendakaritzari dagozkio:

- a) Eskola kontseiluaren ordezkaria izatea.
- b) Bilkuretako buru izatea, eztabaiden garapena moderatzea eta eztabaidak etetea, justifikatutako arrazoiengatik.
- c) Bere botoarekin boto berdinketak haustea, erabakiak hartu ahal izateko.
- d) Legeak bete daitezen arduratzea.
- e) Eskola kontseiluak hartutako erabakien aktak eta ziurtagiriak ikusi eta onartzea.
- f) Kide bakarreko organoak izendatzea eta izendapenak baliogabetzea.

Kargua hutsik dagoelako edo hutsegite, gaixotasun edo beste legezko arrazoiren bat dela medio kontseiluko lehendakaria falta bada, eskuordetzen duen pertsonak ordezkatu du.

32. artikulua

Eskola kontseiluko idazkaritzak honako eginkizun hauek ditu:

- a) Bileretan parte hartzea, hitzarekin eta botoarekin.
- b) Eskola kontseiluaren bilkuretarako deialdiak egitea, kontseiluko lehendakariaren aginduz eta eskolako zuzendariaren laguntzaz, eta kontseiluko kideen zitazioak ere egitea.
- c) Kideek eskola kontseiluari egindako komunikazioak eta, beraz, jakinarazpenak, datu eskaerak, zuzenketak edo bere ardurapean egon behar duten bestelako idazkiak jasotzea.
- d) Gaien izapideak prestatzea eta bilkuretako aktak idaztea.
- e) Eskola kontseiluaren kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak egitea, ondoren kontseiluko lehendakaritzak ikusi eta onartzeko.

Eskola kontseiluko kide den irakasle batek ordezkatu du idazkaritza, kargua hutsik dagoelako, kanpoan delako, gaixorik dagoelako edo legezko beste arrazoiren bat dagoelako. Zuzendaritzak izendatuko du irakasle hori.

33. artikulua

Eskola kontseiluko kideek honako zeregin hauek dituzte:

- a) Bilkuretarako deialdien jakinarazpena behar besteko aurrerapenez jasotzea, dagokion gai zerrendarekin eta, beharrezkoa bada, eztabaidatuko diren gaien inguruko agiriekin batera.
- b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Botoa emateko eskubidea –pertsonala eta besterenezina– erabiltzea, boto partikularra ematea, eta boto horren zentzua eta hura justifikatzen duten arrazoiak azaltzea.
- d) Galderak eta eskaerak egitea.
- e) Norberari emandako egitekoak betetzeko behar den informazioa lortzea.

Eskola kontseiluko kideek ezin izango dute eskola kontseiluari esleitutako ordezkari funtzio-rik bete, arauen batek edo eskola kontseiluak behar bezala onartutako erabakiren batek berariaz funtzio horiek esleitzen dizkien kasuetan izan ezik.

34. artikulua

Eskola kontseiluaren eraketa baliozkoa izan dadin, eztabaidatzeko, erabakiak hartzeko eta bilerak egiteko, eskola kontseiluko lehendakaritza eta idazkaritza bertan egotea eskatuko da, eta, horrez gain, oro har, kontseilua osatzen duten kide guztien erdiek, gutxienez, joan beharko dute bilerara; edonola ere, erabakiak hartzeko orduan, 28.artikuluaren ezarritakoa hartu beharko da aintzat.

35. artikulua

Ezingo da eztabaidatu edo erabaki aztergaien zerrendan jarri ez den gairik. Eztabaidatu eta erabakitzeke, eskola kontseiluko kide guztiek egon behar dute bilduta eta, horrez gain, gehiengo osoak erabaki beharko du aztergaia presakoa dela.

36. artikulua

Eskola kontseiluak egiten duen bilkura bakoitzeko akta egingo du eskola kontseiluko idazkaritzak.

Akta horretan, nahitaez, honako datu hauek jaso beharko dira: bildutako pertsonak, bilerrako gai zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaidetako argudio nagusiak eta hartutako erabakien edukiak.

Eskola kontseiluko kideren batek hala eskatzen badu, aktan jasoko da erabakiaren aurka hark eman duen botoa, haren abstentzioa eta horien arrazoiak, edo erabakiaren alde eman duen botoaren esanahia.

Kideek boto partikularra eman dezakete idatziz, gehiengoaren erabakiarekin bat ez badatoz; hori egiteko 48 ordu izango dituzte, eta onartutako testuan jasoko da.

Akta hurrengo bilkuran onartuko da. Dena den, hartutako erabaki zehatzei buruzko ziurtagiriak egin ditzake eskola kontseiluko idazkaritzak, akta aurrerago onartzeko egon arren. Akta onartu aurretik egiten diren ziurtagirietan, berariaz adierazi behar da egoera hori, hau da, akta onartu aurretik egin direla ziurtagiriak.

Aztertuko diren gaiak garrantzitsuak direnean, bakoitzak bere boto txartela eman ez egingo da bozketa, eta ondoren eskola kontseiluko lehendakaritzak edo idazkaritzak boto zenbaketa egingo du. Hori guztia aktan idatziko da.

Musika giroa ikasleen gurasoen elkarteak.

37. artikulua

Musika giroa ikasleen gurasoen elkarteak musika eskolako kudeaketan gurasoek espezifikoki parte hartzeko organoa da. Musika eskolan matrikulatuta dauden ikasleen guraso edo tutore guztiak ordezkatuko ditu.

38. artikulua

Musika giroa ikasleen gurasoen elkarteak honako zeregin hauek ditu:

a) Egokitzea jotzen dituen proposamenak aurkeztea musika eskolako gainerako organoei, haien eskumeneko gaien inguruan; besteak beste, honako hauek: irakaskuntza jardueren programaren gauzatzeari buruzko balorazioa; prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programari buruzko balorazioa eta urteko kudeaketa programari buruzko balorazioa.

b) Lehendakaritzarekin eta zuzendaritza-taldearekin harremanak izatea, musika eskolaren hezkuntza egitasmoaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.

c) Gurasoen ekimena bultzatzea, musika eskolako bizitzan modu aktiboan parte har dezaten.

d) Eskola kontseiluan dauden gurasoen ordezkariek bilkuretara azal daitezkeen bultzatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa emateko.

e) Ikasleen eskubideak eta interesak defendatzea musika eskolako kudeaketa organo guztietan beren seme-alaben hezkuntzari dagokionez.

f) Ordezkariek aukeratzea eta musika eskolako eskola kontseiluan aktiboki parte hartzea.

g) Elkarlanean aritzea musika eskolako hezkuntza lanean.

- h) Gurasoen solaskideak izatea lehendakaritzaren eta zuzendaritza taldearen aurrean.
- i) Musika eskolako ikasle guztiei aukera berdintasuna bermatzea.
- j) Ikasleen gurasoek –dela ikasleen gurasoen elkartearen bidez, dela ikasleen elkartearen bidez, adin nagusikoen kasuan– beren seme-alabak hezteko eta trebatzeko bitartekoei eraginkortasun handiagoa ematearren aurkezten dituzten iradokizun guztiak jaso, aztertu eta eskola kontseilura eramatea.

3. titulua. Irakasleen funtzionamendu araubidea

1. Kapituluua. Irakasleen klaustroa

39. artikulua

Musika eskolan lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute klaustroa eta musika-eskolako zuzendaria izango da buru.

40. artikulua

Klaustroak honako zeregin hauek ditu:

- a) Curriculum-proiektua eta jarduera-programa prestatzea, curriculum-proiektuak hezkuntza-proiektuan jasotako jarraibideetara egokitzeko.
- b) Irakaskuntza jardueren programa nola betetzen ari den jakinaraztea zuzendaritza taldeari, urteko memoria egin dadin.
- c) Ikasleen ebaluazioari buruzko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.
- d) Ikasleen orientaziorako eta tutoretzarako funtzioak antolatzea eta zuzentzea.
- e) Musika eskolan garatu beharreko pedagogiako saiakuntzaren edo ikerketaren esparruan ekimenak sustatzea.
- f) Prestakuntza jarduerak, eskolaz kanpokoak eta osagarriak egiteko zuzendaritza taldeak prestatutako programari buruzko informazioa ematea, eskola kontseiluak onar dezan.

41. artikulua

Klaustroak zuzendaritza-taldea izendatzea proposatuko du, bai eta hura baliogabetzea edo etetea ere, hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

Klaustroak ohiko bilkura hiru hilean behin egingo du, gutxienez, eta bilkura berezia, berri, zuzendaritzak deialdia egiten duen guztietan, edo klaustroko kideen herenak, gutxienez, eskatzen duen guztietan. Horrez gain, derrigorrez egin beharko da ikasturte hasieran eta amaieran bilkura bana.

Klaustroko kide guztiek nahitaez joan beharko dute klaustroak egiten dituen bileretara.

Klaustroak egiten dituen bilera guztien aktak egingo ditu musika eskolako idazkariak. Akta bakoitzean, nahitaez, honako datu hauek zehaztu beharko dira: bileran egon diren irakasleak eta egon ez direnak, bilerako gai zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaidetako argudio nagusiak eta hartutako erabakien edukiak.

Klaustroko kideren batek hala eskatzen badu, aktan jasoko da erabakiaren aurka hark emandako botoa, haren abstentzioa eta horien arrazoiak, edo erabakiaren alde eman duen botoaren esanahia.

Kideek boto partikularra eman dezakete idatziz, gehiengoaren erabakiarekin bat ez badatoz; hori egiteko 48 ordu izango dituzte, eta onartutako testuan jasoko da.

Akta hurrengo bilkuran onartuko da. Dena den, hartutako erabaki zehatzei buruzko ziurtagiriak egin ditzake musika eskolako idazkariak, akta aurrerago onartzeko egon arren. Akta onartu aurretik egiten diren ziurtagirietan, berriaz adierazi behar da egoera hori, hau da, akta onartu aurretik egin direla ziurtagiriak.

Klaustroaren erabakiak bozketaren bidez onartuko dira, eta onartuak izateko gehiengo osoa lortu beharko da. Kide guztien botoa pertsonala eta besterenezina izango da.

Aztertuko diren gaiak garrantzitsuak direnean, bakoitzak bere boto txartela emanaz egingo da bozketa, jarraian, zuzendaritzako musika-eskolako idazkariak botoak zenbatuko ditu, eta aktan jasota geratuko da.

2. kapitulua. Zuzendaritza arloa

42. artikulua

Zuzendaritza-taldeko kideak hiru ikasturterako aukeratu dira. Hautagaitzak ezin izango dira banaka aurkeztu, hiru irakasleko talde bateko kide gisa baizik (zuzendaritza, ikasketa-burutza eta idazkaritza). Hautagairik ez badago, zozketa bidez erabakiko da, eta ezin izango da kargua utzi.

Zuzendaritza-taldea aukeratzeko prozesua ikasturtearen amaieran egingo da (ekainean). Zuzendaritza talde berriak irailaren 1etik aurrera hartuko du kargua.

Zuzendaritzak kargua uzten badu, ezohiko hauteskunde-prozesua egingo da.

43. artikulua

Zuzendaritza-taldeari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Zuzendariari laguntzea musika-eskolaren zuzendaritza eta koordinazioari buruzko irizpideak hartzen, bai eta haren funtzionamenduan garrantzi handiena duten erabakietan ere.

b) Prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa egitea, eskola-kontseiluak horiek guztiak onar ditzan.

c) Aurreko paragrafoan aipatutako programen betearazpena koordinatzea eta gainbegiratzea, eta eskola-kontseiluari horien betetze-mailaren berri ematea, eskola-kontseiluak urteko memoria onar dezan.

d) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, eskola-kontseiluak eztabaida dezan.

e) Eskola-kontseiluari proposatzea lankidetzaharremanak ezar ditzala musika-hezkuntzako beste ikastetxe batzuekin, eta proposamenak egitea eskola-kontseiluak, egoki baderitza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari helaraz diezazkion, kultura- eta hezkuntza-helburuak dituzten beste erakunde batzuekin hitzarmenak sina ditzan.

Zuzendaritza.

44. artikulua

Zuzendaria musika eskolako funtzionamenduaren arduraduna da. Eskola kontseiluak ezarritako jarraibideen arabera jarduten du.

Hauek dira zuzendaritzari dagozkion zereginak:

a) Musika eskolaren ordezkari ofiziala izatea.

b) Musika eskolaren funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea, musika eskolako ekitaldi akademikoetarako eta kide anitzeko organoen bileretarako deialdiak egitea eta horien buru izatea.

c) Ziurtagiriak eta agiri ofizialak ikusi eta onartzea.

d) Indarrean dauden legeak eta gainerako xedapenak betetzea eta betearaztea.

e) Musika eskolari atxikitako langileak antolatzea.

f) Jarduera akademikoak, osagarriak eta eskolaz kanpokoak koordinatzea, hezkuntza egitasmoari, curriculum proiektuari eta urteko programazio orokorrari lotuta.

g) Ikasketa adar guztietako lanak koordinatzea.

h) Hezkuntza elkarteko kideen arteko bizikidetzak, errespetua eta tolerantzia sustatzea eta ikasleen eta irakasleen eskubideen eta betebeharren araudia beteko dela bermatzea.

i) Arautegi honetan esleitzen zaizkion eskumenak.

45. artikulua

Zuzendaria kanpoan edo gaixorik dagoenean, baimen ofizialak hartzen dituen eta indarra duen araudian onartutako gainerako kasuetan, ikasketa-buruak egingo ditu haren eginkizun guztiak, eta bere kargua eta zuzendaritzarena beteko ditu harik eta hura lanera itzultzen den arte.

Dimisioa edo kargu-uztea gertatuz gero, 41. artikuluan adierazitakoa egingo da.

Ikasketa-burutza.

46. artikulua

Ikasketa-burutza da curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa zuzenean koordinatzeaz eta zaintzeaz arduratzen den organoa.

Ikasketa-burutzak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Zuzendaria ordezkatzeko, hura kanpoan edo gaixorik badago.
- b) Hezkuntza-proiektuari, curriculum-proiektuari eta urteko programazio orokorrari lotutako jarduera akademikoak, osagarriak eta eskolaz kanpokoak koordinatzea.
- c) Ordutegi akademikoak betetzen direla zaintzea.
- d) Irakaskuntza-adarretako zereginak koordinatzea.
- e) Musika-eskolako irakasleen ekintza koordinatzea eta zuzentzea, ezarritako programazioen arabera.
- f) Hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetzaren, errespetuaren eta tolerantziaren sustatzea, ikasleen eta irakasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko araudia betetzen dela bermatuz.
- g) Zuzendaritzak agintzen dion beste edozein eginkizun, bere eskumen-eremuaren barruan, edo arau-xedapenek eta erregelamendu honek agintzen dizkiotenak.

47. artikulua

Gaixotasunagatik, baimen ofizialagatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik ikasketaburua ez bada, zuzendaritzako arduradunak bere gain hartuko ditu ikasketaburutzari erregelamenduz esleitutako eginkizunak.

Musika eskolako idazkaritza.

48. artikulua

Idazkariari honako zeregin hauek dagozkio:

- a) Eskola kontseiluaren, zuzendaritza taldearen eta klaustroaren bilkuretako aztergaien zerrendetan sartutako diren gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak xedatzen dutenaren arabera; eta organo horien bilkuretako aktak egitea.
- b) Zuzendariak deialdi formalak eginda kide anitzeko organoak biltzen direnean, bilera guztietako aktak egitea.
- c) Musika eskolako aktak, espedienteak eta agiriak zaintzea eta bertako organoek erabiltzeko prest edukitzea.
- d) Musika eskolako material didaktikoa zaintzea.
- e) Zuzendaritzaren oniritziarekin, musika eskolaren egintza edo ebatzen guztiak eta erabakiak ziurtatzea, baita musika eskolaren aurrekariak, liburuak eta dokumentuak ere.
- f) Arau-xedapenek eta erregelamendu honek esleitzen dizkioten eginkizunak.

3. kapitulua. Irakasleen eskubideak eta betebeharrak

49. artikulua

Irakasleen lan harremanak zentroko hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren bidez arautuko dira, edo, halakorik ezean, langileen estatutuaren bidez.

50. artikulua

Irakasleek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Irakasle lana behar bezalako ardurarekin garatzea, musika eskolako curriculum proiektua eta irakasgai bakoitzaren plan pedagogikoa kontuan hartuta eta alde aurretik ezarritako mailarekin eta intentsitatearekin.

b) Lan-egutegia betetzea.

c) Ikasgelan ordena, diziplina eta aprobetxamendua zaintzea, eta arauz kanpoko zerbait gertatzen denean musika eskolako zuzendaritza taldeari jakinaraztea.

d) Hiru hilean behin txostena egitea, modalitate orokorreko ikasle guztiei emango zaiena. Bertan azalduko dira ikaslearen jarrera, errendimendua, interesa, hutsegiteak, diziplinazko faltak, eta jakingarritzat jotzen den informazio guztia. Halaber, modalitate espezifikoan urteko txostena egingo da.

e) Familientzako arretaren ordutegiak ezartzea.

f) Klaustroetara joatea.

g) Beren jarduerarekin zerikusia duten gai guztietarako musika eskolak dituen protokoloak ezagutzea.

h) Eskura jarritako materialaz arduratzea, instalazioak eta tresnak behar bezala erabiliz.

51. artikulua

Irakasleek eskubide hauek dituzte:

a) Beren ordezkari sindikalak aukeratzea.

b) Irakasleen klaustroko kide izatea.

c) Zuzendaritza Arloa hautatzea.

d) Ekimenak, iradokizunak eta abarrekoak aurkeztea.

e) Justifikatutako arrazoiengatik ordutegiak aldatzea.

4. titulua. Ikasleen funtzionamendu araubidea

52. artikulua

Ikasleek eskubide hauek dituzte:

a) Beren osotasuna –fisikoa, psikikoa eta morala– eta duintasuna errespetatu dadila; ikasleak ez du inoiz jokaera iraingarri edo umiliagarririk jasango, ezta tratatu txar fisikoa edo morala berekin dakarren zigorrik ere.

b) Beren eskolako errendimendua objektibotasun irizpideak erabiliz baloratu dadila.

c) Musika eskolako organoen aurrean ekimenak, iradokizunak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izatea. Erreklamazio guztiak, lehenengo eta behin, irakasleari aurkeztu beharko zaizkio, baina irakasleak ematen duen argibidea edo erantzuna ikaslearen edo familiaren gogokoa ez bada, idatzizko erreklamazioa egin ahalko zaio musika eskolako zuzendaritza taldeari eta, azkenik, eskola kontseiluari.

d) Ezarritako ordutegia errespetatu dadila, salbu eta ezinbesteko arrazoiengatik ezinezkoa denean.

e) Aldizka, bere ikasketen bilakaerari buruzko informazioa izatea.

f) Kalitatezko irakaskuntza jasotzea, eta helburu horretarako Musika Eskolan dauden baliabide materialak erabili ahal izatea, betiere modu arduratsuan. Material horiek norberaren irakasleak gainbegiratuta erabili beharko dira, eta musika eskolako zuzendaritza taldearen oniritzia jaso beharko da.

g) Eskola kontseilurako beren ordezkaria aukeratzea, baldintza bakarrarekin: hautaketa-prozesuan parte hartzeko 16 urte edo gehiago eduki behar dira.

53. artikulua

Ikasleen ordezkariak eginkizun hauek ditu:

a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak aurkeztea musika eskolako gainerako organoei, haien eskumeneko gaien inguruan; besteak beste, honako hauek: irakaskuntza jardueren programaren gauzatzeari buruzko balorazioa; prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programari buruzko balorazioa eta urteko kudeaketa programari buruzkoa.

b) Musika eskolako zuzendaritzarekin eta zuzendaritza taldearekin harremanak izatea, musika eskolaren hezkuntza egitasmoaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.

c) Ikasleen ekimena bultzatzea, musika eskolako bizitzan modu aktiboan parte har dezaten.

d) Egindako kudeaketari buruzko informazioa ematea gainerako ikasleei.

e) Musika Eskolak hezkuntza eginkizunak alde batera uzten baditu edo behar bezala betetzen ez baditu, erreklamazioak aurkeztea.

f) Ikasleen aprobeitxamenduen balorazioaren objektibotasunari eta eraginkortasunari buruzko alegazioak eta erreklamazioak aurkeztea.

g) Musika eskolak nahitaez jotzat jotzen duen material didaktikoaren eta ikasleei modu espezifikoa eragiten dieten beste jarduera eta erabaki batzuen inguruko iritzia ematea.

h) Musika eskolako lehendakariarekin eta zuzendaritza taldearekin elkarlanean aritzea, ordenari eta diziplina akademikoari eusteko.

i) Musika eskolako instalazioen eta materialen erabilera egokiaz arduratzea.

j) Musika eskolako ikasleen bizikidetzat sustatzea.

54. artikulua

Hauek dira ikasleen betebeharrak:

a) Izena eman duten irakasgaietako eskoletara joatea.

b) Irakasgai bakoitzari behar duen denbora eta dedikazioa eskaintzea.

c) Musika eskolako eskola kontseiluaren eta irakasleen gidalerroak eta jarraibideak betetzea.

d) Ikasturte bakoitzaren hasieran aukeratutako ordutegia errespetatzea.

e) Datu pertsonalei dagokienez, musika eskolaren interesekoa izan daitekeen aldaketarik baldin badago, horren berri ematea.

f) Musika eskolaren eraikinean edo materialetan eragiten dituzten kalteak konpondu eta ordezteak.

g) Matrikularen ordainketa eta kuotak erregularizatuta izatea.

- h) Irakasleekiko eta gainerako ikasleekiko errespetuzko jarrera izatea.
- i) Irakasleek erabiltzen dituzten ebaluazio irizpideak errespetatzea.
- j) Hutsegiteak justifikatzeko frogagiria eramatea eskolara.
- k) Adingabearen legezko arduradunaren baimena eskolara eramatea, baldin eta jarduera osagarriak musika eskolatik kanpo egiten badira.
- l) Ikasleen egoera pertsonalaren eta familia egoeraren inguruko informazio guztia isilean gordetzea.

55. artikulua

Ikasleek musika eskolan programatzen diren entzunaldietan, elkarrekin eta ariketa publikoetan parte hartzeko eta eskolak ezartzen dituen talde entseuetara joateko betebeharra dute.

Musika eskolak bere ikasleekin antolatzen dituen kontzertu eta entzunaldietara joatea derri-gorrezkoa da parte hartu behar duten ikasleentzat eta gomendagarria, berriz, gainerako ikasleentzat. Kasu horietan, eskola ez da berreskuratuko.

Irakasleei hutsegiteak justifikatzea eta, ahal bada, alde aurretik jakinaraztea. Kasu horietan, eskola ez da berreskuratuko.

56. artikulua

Ikasturtean zehar, musika hizkuntzan 10 hutsegite edo gehiago edota instrumentuan edo instrumentu taldean 6 hutsegite edo gehiago dituzten ikasleei baja emango zaie musika eskolan; gaixotasunagatik edo idatziz justifikatutako beste arrazoiren batengatik egindako hutsegiteak ez dira kontuan hartuko.

Justifikatutako hutsegitea irakasleak epaitu eta baliozkotzat hartu beharko du, edo, azken epaile gisa, musika eskolako lehendakariak.

Irakasleak hutsegiteen ondorioez ohartaraziko ditu ikasleak, onartutako gehieneko hutsegite kopurura iritsi baino lehen.

57. artikulua

Goian azaldutakoa alde batera utzita, jasotako irakaskuntzan interes falta nabaria erakusten duten edo irakasgaiak behar bezala aprobetxatzen ez dituzten ikasleei baja emateko aukera egongo da. Horretarako, irakasleak eta musika eskolako zuzendaritza taldeak hitzordua jarriko dio ikasleari, haren senideari edo ardurapeko legezko pertsonari, egoera azaltzeko eta haien alegazioak entzuteko.

Handik hilabetera ikasleak bere jarrerari eusten badio, musika eskolako eskola kontseiluak idazki baten bitartez baja emango dio musika eskolan, eta/edo ez du onartuko hurrengo ikasturtean.

58. artikulua

50. artikuluan aipatutako betebeharrak ez betetzeak eta, zehazki, ez betetze hori larritzat jotzeak –adibidez, hutsegitea behin eta berriro egiteak– plaza galtzea edota hurrengo ikasturtean ez onartzea ekarriko du. Hala, musika eskolako zuzendaritza taldeak alde aurretik txostena egin beharko du eta, bertan, gertaerak eta inguruabarrak baloratuko dira eta eskola kontseiluari aurkeztuko zaizkio. Azken horrek behar bezala ebatziko du.

Kurtoaren edukiak 20. artikuluan ezartzen den moduan gainditzen ez dituzten ikasleak ere ez dira onartuko hurrengo ikasturtean.

5. titulua. Musika eskolako arau hauste eta zehapenen araubidea**59. artikulua**

Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau hauste arinak hauek dira:

- a) Berandu iristea, behin eta berriro egiten ez denean baina justifikaziorik ez duenean.
- b) Eskoletara ez joatea, behin eta berriro egiten ez denean baina justifikaziorik ez duenean.
- c) Musika eskolako bulego edo instalazioetan, materialetan edo musika eskolako gainerako kideen objektuetan zein ondasunetan nahita egindako kalteak, larriak ez direnean.
- d) Musika eskolako kideen aurkako diziplinarik eza, irainak edo laidoak, larriak ez direnean.
- e) Musika eskolako gainerako kideen aurkako eraso fisikoak, larriak ez direnean.
- f) Justifikaziorik gabeko edozein ekintza, banakakoa zein taldekoa, musika eskolako jardueren ohiko garapena arinki oztopatzen duena.

Hauek dira arau hauste larriak:

- a) Musika eskolako kideen aurkako diziplinarik eza, irainak edo laidoak, larriak direnean.
- b) Musika eskolako gainerako kideen aurkako eraso fisiko larriak.
- c) Irakasbizitzaren barruan beste norbaiten nortasuna hartzea eta agiri akademikoak faltutzea edo lapurtzea.
- d) Musika eskolako lokaletan, materialetan, agirietan edo musika eskolako gainontzeko kideen ondasunetan kalte larriak eragitea, behar bezala erabili ez direlako.
- e) Justifikaziorik gabeko ekintzak, banakakoak zein taldekoak, musika eskolako jardueren garapena larriki oztopatzen dutenak.

f) Ikasturte berean 5 arau hauste arin egitea.

g) Eskola kontseiluak modu baliozkoan hartutako erabakiak ez betetzea.

Hutsegite oso larriak honako hauek dira:

- a) Musika eskolako kideen aurkako diziplinarik eza, irainak edo laidoak, oso larriak direnean.
- b) Musika eskolako gainerako kideen aurkako eraso fisiko oso larriak.
- c) Musika eskolako kideen osasunarentzako eta segurtasunarentzako oso kaltegarriak diren ekintzak sustatzea.
- d) Musika eskolako lokaletan, materialetan, agirietan edo Musika Eskolako gainerako kideen ondasunetan kalte larriak eragitea, nahita.
- e) Larrizat sailkatutako arau hausteak, taldean egiten badira edo nahita hedatzen bada egin izana.
- f) Ikasturte berean 3 arau hauste larri egitea.

60. artikulua

Aurreko artikuluetan adierazitako arau hausteengatik honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

Arau hauste arinengatik:

- a) Ahozko kargu hartze pribatua.

Arau hauste larriengatik:

- a) Ohartarazpena, irakasgaiko irakaslearen txosten zehatza barne hartuko duena.
- b) Ikaslea taldez edo ikasgelaz aldatzea.
- c) Musika eskolako jarduerak hobetu eta garatuko dituzten lanak egitea edo, hala behar denean, eragindako kalte materialak konpontzea. Lan horiek gehienez 3 hilabetez egingo dira.

Arau hauste oso larriengatik:

- a) Musika eskolako jarduerak hobetu eta garatuko dituzten lanak egitea edo, hala behar denean, eragindako kalte materialak konpontzea. Lan horiek gehienez 6 hilabetez egingo dira.
- b) Musika eskolara sartzeko eskubidea kentzea, eskola egun batetik zazpita bitarteko aldirako; betiere, etengabeko ebaluazioa kaltetu gabe eta ikasleak bere etxean etxeko lanak egitearen kaltetan izan gabe.

Ikasturte berean ikasleari 3 arau hauste oso larri edo gehiago leporatu bazaizkio eta arau hausteok baliogabetu ez badira, eskola kontseiluak honako zehapen hauetako edozein aplikatzea aukeratu ahal izango du:

a) Musika eskolan ikasketak egiteko gaitasunik gabe uztea. Gaitasungabetze hori ezingo da izan ikasturtea amaitzeko falta den epea baino luzeagoa eta, edonola ere, ikasturtearen ebaluazio globala bermatuko da.

b) Musika eskolan jarraitzea debekatzea.

Hori guztia gorabehera, eragindako kalteak konpondu beharko dira.

Arau hauste arinengatik zehapenak ezartzeko ez da inolako prozedurarik bete beharko, erruztatuaren entzunaldia izan ezik, eta entzunaldi horrek bost egun baliodun iraungo du.

Arau hauste larriengatik eta oso larriengatik zehapenetarako, hurrengo artikuluetan ezarritako prozedura beteko da.

61. artikulua

Zuzendaritzak ezarriko ditu zehapenak. Zuzendaritzak ofizioz ekingo dio arau hausteengatik zehapenak ezartzeko prozedurari, bere ekimenez, goragokoen aginduz edo salaketa baten ondorioz.

62. artikulua

Aurretiazko jarduketak.

1. Zehapen prozedura hasi baino lehen, aurretiazko jarduketak egin ahal izango dira, prozedura hastea justifikatzen duen inguruabarrak badagoen zehazteko. Bereziki, aurretiazko jarduketa horietan ahalik eta ondoen zehaztuko dira prozedura abian jartzeko bide eman dezaketen egitateak, ustezko erantzuleen identifikazioa eta garrantzizko inguruabarrak.

2. Zuzendaritzak aginduko du aurretiazko jarduketak egiteko, eta horien ardurak klaustroko irakasleen esku utzi ahal izango du.

63. artikulua

Zehapen prozedura abiaraztea.

1. Zehapen prozeduren hasiera formalizatzeko, gutxienez eduki hauek jaso beharko dira:

- a) Ustez erantzuleak diren pertsonen identifikazioa.
- b) Prozedura hastea eragin duten egitateen azalpen laburra, horien balizko kalifikazioa eta ezar litezkeen zehapenak; hala ere, horrek ez du eragotziko instrukzioaren emaitza.
- c) Instruktoorea eta, kasua bada, idazkaria izendatzea.

d) Zehapen prozedura hasteko eskumena duen organoak erabakitako behin-behineko neurriak, ezertan eragotzi gabe prozedura horretan beste neurri batzuk hartzea.

e) Prozeduran alegazioak aurkezteko eta entzunaldia izateko eskubidearen aipamena, eta eskubide zein epetan balia daitekeen.

2. Instruktoareari prozedura hasteko erabakia jakinaraziko zaio eta jarduketak helaraziko zaizkio, eta erabaki hori salatzaileari, halakorik bada, eta interesdunei jakinaraziko zaie. Betiere erruztatua interesduntzat hartuko da.

Jakinarazpenean interesdunei ohartaraziko zaie ezen, bost egun balioduneko epean ez badute alegaziorik egiten prozedura hasteko erabakiaren edukiari buruz, hasiera hori ebazpen proposamentzat jo ahal izango dela.

3. Jakinarazpenetarako helbidea musika eskola izango da. Jakinarazpena jaso behar duena zentroan ez badago, zentroko artxiboetan ageri den bizilekura eramango zaio jakinarazpena.

64. artikulua

Jarduketak eta alegazioak.

Zehapen espedientearen hasiera jakinarazten zaienetik hasita, interesdunek bost egun balioduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten alegazio, agiri eta informazioak aurkezteko eta frogak proposatzeko. Frogaren bat proposatzen badute, zer frogabide erabili nahi duten zehaztu beharko dute. Prozeduraren hasiera jakinaraztean, epe hori ere jakinaraziko zaie interesdunei.

65. artikulua

Frogaldia.

1. Alegazioak jaso eta gero edo aurreko artikuluan aipatutako epea igaro eta gero, instrukzio organoak frogaldia ezartzea erabaki ahal izango du, gehienez hamabost egunekoa eta gutxienez bost egunekoa, proposatutako frogak gauzatzeko.

2. Gertaerekin duten loturagatik amaierako ebazpena ustezko erantzulearen alde aldarazi ezin duten frogak bakarrik jo ahal izango dira bidegabekotzat.

3. Agintari izatea aitortzen zaien funtzionario publikoek edo pertsonak egiaztatzen dituzten eta legezko betekizunak betez dokumentu batean formalizatzen diren egitateek frogak balioa izango dute, ezertan eragotzi gabe erabiltzaileek beren eskubide edo interesen alde seinatu edo aurkeztu ditzaketen frogak.

66. artikulua

Ebazpen proposamena.

Frogarik bada, hura gauzatutakoan prozedurako instrukzio organoak ebazpen proposamena egingo du. Bertan egitateak finkatuko dira modu arrazoituan; frogatutak jotzen diren egitateak eta horien kalifikazio juridikoa zehaztuko dira; dagokien zehapena, bidezkoa bada, eta erantzuleak zehaztuko dira; eta proposatzen den zehapena eta ezarri diren behin-behineko neurriak, halakorik bada, zehaztuko dira; edo bestela arau hausterik eta erantzukizunik ez dagoela adieraz dadila proposatuko da.

67. artikulua

Entzunaldia.

1. Ebazpen proposamena interesdunei jakinaraziko zaie. Prozeduran bildu diren dokumentuen zerrenda erantsiko zaio jakinarazpenari, interesdunek nahi dituzten kopiak eskuratu ahal izan ditzaten; eta bost egun balioduneko epea emango zaie instrukzio organoaren aurrean alegazioak egiteko.

2. Ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik baldin eta prozeduran agertzen eta kontuan hartzen badira soil-soilik interesdunak adierazitako egitate, alegazio eta frogak.

68. artikulua

Arau hausteen preskripzioa.

Arautegi honetan aipatutako arau hauste oso larriak, larriak eta arinak eta dagozkien zehapenak hurrenez hurren urtebeteren buruan, sei hilabeteren buruan edo hiru hilabeteren buruan preskribatuko dira.

Arau haustea egiten denean edo zuzendaritzak arau haustearen berri jakiten duenean hasiko da preskripzio epea, eta eten egingo da –eta ordutik aurrera igarotzen den denbora ondoriorik gabe geratuko da– ustezko errudunaren aurkako prozedura abiarazten denean. Preskripzio epea berriro hasiko da zenbatzen prozedura geldiarazten bada edo zehapenik gabe amaitzen bada.

69. artikulua

Zehapenaren maila igotzeko edo jaisteko, honako hauek joko dira inguruabar aringarritzat:

- Arau haustea berez aitortzea.
- Aldez aurretik zehapenik eduki ez izana.
- Materialetan edo ondasun higiezinetan kalteak eragin badira, horiek konpontzea, eskola ordutegitik kanpo, espedientearen ebazpena eman baino lehen.
- Irainak edo laidoak egon badira edota musika eskolaren jardueren garapena eragotzi bada, jendaurrean barkamena eskatzea, eta barkamen eske hori nahikotzat jotzea.
- Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez dela erakustea.

70. artikulua

Zehapenaren maila igotzeko edo jaisteko, honako hauek joko dira inguruabar astungarritzat:

- Lapurreta, eraso, iraina edo laidoa adingabeen, ezinduen edo musika eskolan hasi berrien aurkakoa izatea.
- Arau haustea nahita egin izana.
- Arau haustea aurrez pentsatuta edo norbaitekin elkar hartuta egin izana.
- Arau hauste kolektiborako bidea edo bultzada eman izana.

Inguruabar aringarri edo astungarri bat edo gehiago gertatzea kontuan hartuko da espediente ebazterakoan, zehapenaren maila igotzeko edo jaisteko eta, bidezkoa denean, arau haustearen sailkapena arintzeko.

71. artikulua

Arau haustea musika eskolako barrutiaz kanpo egiten denean, hori ez da oztopo izango zehapena aplikatzeko, musika eskolak programatutako jarduera osagarrien garapenean gertatzen bada.

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. Artikuluan xedatzen duenarekin.

Administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoari zuzendua. Horretarako hilabeteko epea izango da erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Horrez gainera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.

Agurain, 2024ko apirilaren 3a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR